

8. GAIA: Teknika proiektiboak

8.1. TEKNIKA PROIEKTIBOEN DEFINIZIOA

*Lindzey (1961):

- “ERANTZUN SUBJEKTIBO ASKO sortzen duten alderdi INKONSTZIENTEAK detektatzeko oso sentikorrek diren tresnak dira; DIMENTSIOANITZAK dira oso eta datu asko eta aberatsak sortzen dituzte. Oro har, aurkeztutako MATERIAL ESTIMULARRA AMBIGUOA da, subjektuaren irudimena estimulatzeko dute, hauetatik EZ DIRA ERANTZUN ZUZENIK EDO OKERRIK ERATORTZEN eta interpretazioa ANALISI GLOBALETIK egiten da”.

*ETS (1991):

- “ERANTZUN EZ EGITURATUA eskatzen duten neurriak, aztertu beharreko subjektuaren NORTASUNA edo KOGNIZIOAREN ebaluazioa egiteko”.

*Aurrekari historikoak:

- 1) Jung-en “Hitzen asoziazioa” teknikaren ezarpena (1906): mugarrira teknika proiektiboak erabiltzen hasi XX. mendearen hasieran.
- 2) Rorschach-en “Psychodiagnostik” lehen edizioa (1921): bere testa nola interpretatu eta nola ulertu zitekeen adierazi zuen liburu horretan.
- 3) Murray-ren “Explorations in Personality” (TAT-en oinarria, 1938): nortasuna aztertzeko balio zuen.

*Egun %20a, 140 (ETS, 1991).

*Balizko krisialdia (krisi erlatiboa) edo beherakada 60ko hamarkadatik aurrera: gero eta gehiago egiten hasi ziren baina 60ko hamarkadatik aurrera beherakada eduki zuten eta gaur egun ez dira egiten. Oraindik %20a erabiltzen da, kontutan hartuta atzetik dagoen korranteak ez duela arrakasta asko, krisia erlatiboa da.

*Marko teorikoak (Psikoanalisi, Gestalt, E-R (eredu konduktistan autoreren bat, baina ez asko)). Marko teoriko honetatik ez da asko hartzen. Freudek aipatu zuen lehen aldiz.

*Subjektuaren barne munduaren proiektzioa da garrantzitsua:

- Freud:
 - o nahaste paranoideen azpiko herstura eta erruaren aurreko defentsa mekanismoa; Kasu oso konkretuetan erabiltzen zela proiektzioa defendatzen zuten: nahaste paranoiko, herstura eta errua ekiditeko defentsa mekanismoetan.

- o **nahaste ez patologikoetara ere zabaldua: prozesu ideazionalak eta emozionala kanpo mundura proiektatuak:** Gerora ikusi zen ez zela tipologia honetan sartzen de jendeak soilik egiten duen zerbait, prozesua zerbait zabalagoa zela konturatu zen eta jendeak egunerokotasunean erabiltzen zuela.
- **Murray:**
 - o **estimuluaren hautemate faltsua edo interpretazio desegokia.** Proiektatzean estimuluak hautematen ditugu, baina hautemate faltsu batekin, behar ez den bezala interpretatzen ditugu.
 - o **proiektatzen duen subjektuak objektuari (proiektuari) ezartzen dio berezko joera bat beste objektu batean edo berarengan.** Gure barnetik kanpo dagoen objektua interpretatzen dugu. Berez ez dago, gure psike barneko zerbait da.
 - o **ezarritako joera proiektatzen duenaren nortasuneko zerbait da.** Berez gure nortasuneko zerbait da, gure psikebarneko zerbait.
 - o **proiektatzen dena subjektuarentzat onartezina da eta horregatik proiektatu behar da edo erreprimitu; subjektuak erdizka da kontzientea edo guztiz inkontzientea du joera hau.** Gure autoestima babesteko inkontzientean mantentzen dugu, ez baitugu onartzen horrelakoa izatea. Ondorioz, defentsa mekanismo bat erabiltzen dugu, proiektzioa.
 - o **proiektzioaren helburua autoestima mantentzea da.** Hori dela eta, errealitatean gustatzen ez zaigun hori kanpoan ikusten dugu, pertsona guztien ezaugarritzat. Ez dugu elementu hori onartzen. Denok erabiltzen dugu proiektzioa.
 - o Inork ez du pentsatu nahi ez dela sentikorra besteen sentimenduekiko eta **edozein ikusten duena ezaugarri hori somatuko du beste pertsonetan.** Bera horrelakoa da eta ezkutatu egiten du inkontzienteki. Gure barrutik atera eta beste bati jartzen diogu. Interpretazioa bere barne mundutik hurbil.

8.2. TEKNIKA PROIEKTIBOEN EZAUGARRIAK

***Abiapuntua:** subjektuak nortasuneko oinarrizko egitura egonkorra (ez da egun batetik bestera aldatzen) du. Egiturak dimentsio batzuk ditu, era berezian antolatuta subjektu bakoitzean. Teknika proiektiboetako erantzunek egituraren azterketa baimentzen dute.

***Egituraren antolaketak sakontasun maila desberdin eskatzen ditu. Adb.:** Rorschach: sakonak, TAT: azalekoak, egoeraren eragina.

***Nortasuneko egitura behaezinen eta kanpoko portaeraren arteko lotura dagoenez, nortasuneko egiturak jokabideak aurrerata baimenduko du.** Beste batzuek ez diote honi kasurik egiten.

***Material proiektiboaren aurreko erantzun guztiak adierazgarriak izango dira, eta nortasuneko seinale gisa ulertuko dira.** Ematen diren erantzun guztiek esanahia dute, denak interpreta ditzakegu. Lamina pasatzean zerbait badatorkio ere oso garrantzitsua da eta esanahia du. Erantzun guztien kausak bilatu behar dira.

***Zenbat eta anbiguoago estimuluak, orduan eta gehiago azalduko da nortasuna erantzunetan.** Izan ere, anbigua denean norberaren barne mundua azaleratzen da. Pelikula normala bada ez da horrenbeste azaltzen.

***Barne munduaren eta erantzunen arteko erlazioaz subjektua ez da kontzienteza: zaila erantzunak faltsutzea, teknika kamuflatu eta inboluntarioak.** Teknika kamuflatzen da ez ezkutatu nahi delako, subjektuak teknikaren helburua zein den jakitea nahi ez delako baizik.

***Erantzunen analisia kualitatiboa eta holistikoa.** Ez da analisi kuantitatiboa egiten, kasu batzuetan zenbakiak azal daitezke baina guk kualitatiboki egingo dugu eta ikuspegi holistiko batetik; hau da, ez ditugu elementu isolatuak aztertuko baizik eta osotasuna.

***Mota askotako teknikak, talde heterogeneoa:**

- **Egituretalak:** Egitura gutxiko material bisuala, non subjektuak zer den edo zeren antza duen (adb., Rorschach). Subjektuak zer ikusten duen esan behar du, zeren antza hartzen dion.
- **Tematikoak:** Egitura maila desberdineko (giza irudiak ala ez) material bisuala, non subjektuak istorio bat kontatu (adb., TAT). Sakonagoa edo azalekoagoa. Hemen istorio bat planteatu behar du, ez du soilik ikusten duena zer den esan behar.
- **Adierazpenekoak:** Figura bat marrazteko agindu idatzia edo berbala (adb., familiaren marrazkia). Hurrekin sarritan erabiltzen dira. Ez dago irudirik, sortu egin behar dira, marrazkiak egin behar dira.
- **Konstruktiboak:** agindu batzuen arabera subjektuak antolatu beharreko materiala (adb., herriaren testa → baserria eta txerriak eman eta herria sortu). Objektu manipulatioak erabiltzen dira. Zuk berez ez duzu ezer sortzen objektuak bertan baitaude eta horiek zerbait eraiki behar baituzu. Adierazpenekoa baino mugatuagoak dira.
- **Asoziatioak:** hitz, esaldi edo ipuinekiko asoziazioak ahoz esan beharreko aginduak emanak (adb., osatu gabeko esaldiak, Düss-en ipuinak). **Ahoz esaldi bat,** estimuluaren aurrean zerbait sortu behar dute ahoz baita ere.

8.3. TEKNIKA EGITURALAK: RORSCHACH

***Egitura gutxikoa**

***10 lamina (lohidurak simetrikoak): 5 zuri-beltz (I, IV, V, VI, VII), 2 gorri eta beltz (II, III), eta 3 polikromo (koloretan) (VIII, IX, X) → zenbaki erromatarrez izendatzen dira. Lamina bakoitza eduki batekin lotzen da.**

***Protokoloaren bilketa, balorazioa eta interpretazioa oso desberdinak (Exner-renak, 1978, 1990):**

- **Kokapena**
- **Edukia**
- **Mugatzaileak**
- ...

→ 10 laminen bidez interpretazio bat eman behar da. Beti orden berean aplikatzen dira lamina horiek erantzuna guztiz askea delarik. Interpretazioa oso zaila da test psikometrikoekin konparatuz batez ere. Mintegi bereziak edo masterrak daude hauen interpretazioa egiten ikasteko. Horrez gain, **dinamikan oso sartua egon behar zara. Exner-ena da gehien erabiltzen dena. Hainbat alderdi protokolizatuak daude baina horrekin bezala ezin da interpretatu.**

8.4. TEKNIKA TEMATIKOAK

***Eginbeharra: Estimulu nahasgarriekin istorioa kontatu.** Estimulu anbiguoarekin istoriotxo bat egin behar da. Hemen kokatzen da txeritxoaren testa, “hanka beltza”.

***TAT eta TRO** (erlazio objektalen testa: bere harremanak nolakoak diren aztertzeke balio du. Irudiak batzuk markatuagoa, beste batzuk gutxiago. Harremanekiko perspektiba zein den adierazten da) **zabalduenak (baita FPT, CAT-A, CAT’S, CAT-H ere)**

***Agindua berdina beti (malgutasun gutxi), ebaluatzailearen esku-hartzerik ez (saioaren efektua salbu)**

- **“Figura –marrakiz edo lamina– batzuk erakutsiko dizkizut horietako bakoitzean istorio bat kontatu diezadazun. Zure istorioan saia zaitez iraganean zer gertatu den eratzten, zer gertatzen ari den orain, eta gero zer gertatuko den, hala nola zer pentsatu eta sentitzen duten pertsonaia bakoitzak”.** Honakoa esaten zaio eta gero subjektuak erantzuna eman behar du.

8.5. BESTE TEKNIKA PROIEKTIBO BATZUK

***Adierazpeneko teknikak**

- **Material estimularrik eza, marrakia egin beharra:** ebaluatzaileak sortzen du.
- **Zuhaitzaren Testa, Familiaren Testa** (haurrekin asko erabiltzen da tratu txarrak dauden jakiteko, nahasmenak azkar interpretatzeko. Baina ezin da honekin bakarrik erabakirik hartu, ez du peritajerako balio. Hasierako proba gisa balioko liguke), **Giza Irudiaren Testa, Etxea-Zuhaitza-Pertsona** (HTP: denbora dagoenean hirurak aplikatzen dira)

***Teknika konstruktiboak**

- **Subjektuak espazioa egituratu eta elementuak antolatu bertan**
- **Erabilera txikiagoa**
- **Herriaren Testa:** test hibridoa da. Agian tematikoan edo konstruktiboan egon beharko litzateke.

***Teknika asoziatiboak**

- **Estimulu batekiko (hitz, esaldi, ipuin) asoziazioak**
- **Beherakadako joera**

→Gutxi erabiltzen dira baina erabiltzen dituztenek oso probetxuzkoak direla diote.**EZ DAKIT**
NUN DAN